

2023/10/26 – 15:45

AZTERKETAREN KODEA: **COE25**

Especialidad: **GARBIKETA**

**Gehienezko denbora: 45 minutu**

**Galderak: 30.**

MODELO / EREDUA:	<b>D</b>
------------------	----------

#### JARRAIBIDEAK:

- Ez ireki koadernotxo hau esan arte. Orain, jarraitu jarraibide hauek irakurtzen.
- Idatzi: NANA eta LETRA, eta bete laukitxoak irakurketa optikorako.
- Idatzi: 1. abizena, 2. abizena, IZENA eta DATA.
- "AZTERKETA" atalean, idatzi goiko aldean agertzen den azterketa-kodea. **Egin ezean proba baliogabetua izango da.**
- Adierazi zure erantzun-orrian egokitu zaizun azterketa-eredua.
- Gogoratu:
  - 30 galdera, 4 erantzun-aukera dituztenak.
  - Baliozko aukera bakarra. Bat baino gehiago badago, orokorra edo osatuena, enuntziatua "Hautatu enuntziatu FALTSUA" eskatzen da; kasu horretan, hiru egiazkoak izango dira eta ez dena markatu behar da, faltsua.
  - Zuzeneko puntuazioak: Asmatzea, 1,00 puntu, errorea, -0,33 puntu. Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak EZ dute penalizatzen.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ekitaldiko azken 5 minutuetan.
- Azterketa jasotzeko eskatu ahal izango da lehenengo 15 minutuak igarotakoan eta asistentzia identifikatzeko lanak amaitu ondoren.
- Eskatzen zaizunean, bereizi orri zuria eta erantzun-orriaren kopia horia. Zuria erakundeko langileei ematen zaie.
- Kopia horia eta jarraibide-orria bere esku geratuko dira.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik.**

**1. Zer xedatzen du Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 19. artikulua? Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Enpresak bere baliabideen bidez eman ahalko du prestakuntza, ez beste inolako bitartekoren bidez.
- b) Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostu edo eginkizunaren arabera izan beharko da, arriskuen bilakaerari eta ager daitezkeen arrisku berriei egokitu beharko zaie, eta, hala behar izanez gero, aldian-aldian errepikatu beharko da.
- c) Ahal den neurrian, prestakuntza lanaldian eman beharko da, edo, lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta.
- d) Enpresaburuak bermatu beharko du langile bakoitzak izatea prestakuntza teorikoa eta praktikoa, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean, kontratu-modalitatea edo iraupena edozein dela, edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo lan- ekipamenduetan teknologia berriak txertatzen direnean.

**2. Zein da Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluaren helburu nagusia?**

- a) Lan-arriskuen prebentzioaren alorrean langileei dagozkien betebeharrak ezartzea.
- b) Lan-arriskuen prebentzioaren alorrean langileak kontsultatuko direla eta parte har dezaketela bermatzea.
- c) Lan-arriskuen prebentzioaren alorrean ezarritakoak betetzen ez dituzten enpresentzako zehapenak ezartzea.
- d) Lan-arriskuen prebentzioaz arduratuko diren langileek bete beharreko eskakizunak ezartzea.

**3. 31/1995 Legearen 33. artikulua araber, enpresaburuak langileak kontsultatu beharko ditu, beharrezko aurrerapenarekin, ondoko hauei buruz erabaki beharrekoak: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)**

- a) Enpresan lana planifikatu eta antolatzeari buruzko guztia.
- b) Enpresan osasuna babesteko eta lanbide-arriskuak prebenitzeko jarduerak antolatu eta gauzatzea, jarduera horiek gauzatzeaz arduratuko diren langileak izendatzea edo enpresatik kanpoko zerbitzu batera jotzea barne.
- c) Larrialdi-neurriez arduratuko diren langileak izendatzea.
- d) Prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa.

**4. Zein da Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren helburu nagusia?**

- a) Emakumeen diskriminazio positiboa sustatzea.
- b) Neurri-multzo integratu eta sistematikoa bat zehazteko plan gidaria izatea, Gasteizko herritarrek berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan baliatu ahal izan dezaten hirirako duten eskubidea.
- c) Udal-ekintza publikoa orientatzea, bultzatzen diren politikiek berdintasunean eragin positiboa izan dezaten.
- d) Berdintasun-politiken subjektu politikoa arau heteronormatiboak zapaldutako beste pertsona batzuetara zabaltzea.

**5. Zein da Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren indarraldia?**

- a) 2018-2021.
- b) 2020-2024.
- c) 2023-2030.
- d) Ez du indarraldirik.

**6. Helburu hauetatik, zein dagokio Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren 1. ildoari?**

- a) Udal-teknikariak genero-berdintasunean trebatzea.
- b) Hiri-ingurune jasangarria sustatzea, genero-ikuspegiarekin.
- c) Emakumeen Etxearen esparruan ahalduentze feministako prozesuak sendotzea.
- d) Indarkeria matxista prebenitzen laguntzea, balioetan heziz; batez ere, nerabeei eta gazteei dagokienez.

**7. Zein da garbiketa- makinak garbitzeko unerik onena?**

- a) Erabili ondoren.
- b) Erabili aurretik.
- c) Erabili bitartean.
- d) Ez dago garbitu beharrik.

**8. Garbiketa lanei dagokienez, zer da laneko arrisku bat?**

- a) Arriskurik gabeko jarduera bat.
- b) Lesioak edo gaixotasunak eragin ditzakeen jarduera bat.
- c) Jarduera dibertigarri bat.
- d) Egiteko erraza den jarduera bat.

**9. Nork du laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan benetako babesa izateko eskubidea?**

- a) Kontratu finkoa duten langileek bakarrik.
- b) Langile guztiek, edozein kontratu mota dutela ere.
- c) Jarduera arriskutsuak egiten dituzten langileek bakarrik.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

**10. Zer da birziklapena?**

- a) Hondakinak desagerrarazteko prozesu bat.
- b) Hondakinak bereizteko teknika bat.
- c) Hondakinak produktu berri bihurtzeko metodo bat.
- d) Hondakinak erretzeko prozesu bat.

**11. Zein da Gasteizko Udaleko Garbiketa Zerbitzuaren xedea?**

- a) Hiriko espazio publikoak garbi mantentzea.
- b) Parkeetako lorezaintza- eta mantentze-lanak egitea.
- c) Hiriko garraio publikoa kudeatzea.
- d) Hiriko ur- eta energia-hornidura administratzea.

**12. Zer neurri hartu behar da garbiketa-produktuak ontziz aldatu aurretik?**

- a) Babes-eskularruak eta -betaurrekoak erabiltzea.
- b) Ontziak garbi daudela ziurtatzea.
- c) Produktuak elkarren artean bateragarriak direla egiaztatzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**13. Zamak eskuz manipulatzeari ari garela, nolakoak izan behar dute oinetakoak?**

- a) Iristagaitzak.
- b) Objektuen erorketen aurkako babesa dutenak.
- c) Egonkorak, eta erorketarik eragiten ez dutenak.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**14. Produktu arriskutsu gisa sailkatzen diren detergenteen etiketak:**

- a) Bete egin behar du prestakin arriskutsuak sailkatzeari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz indarrean dagoen araudia.
- b) Aski izango da detergenteak eta garbigarriak egiteko, zirkulatzeko eta merkaturatzeko araudi tekniko-sanitarioaren araudiari dagokiona bakarrik betetzea.
- c) Ez du etiketatze-betebeharrik.
- d) Etiketak laranja izan behar du.

**15. Produktu hauetatik zeintzuk egon daitezke ondoan, elkarren artean errektiboak ez direlako?**

- a) Lixiba eta sulfumana.
- b) Lixiba eta amoniakoa.
- c) Lixiba, sulfumana eta amoniakoa.
- d) Denak dira errektiboak elkarren artean, eta ezin dira ondoan egon.

**16. Ontzi biko sistemako orgetan, nolakoak izan behar dute orgako bi ontziek?**

- a) Kolore berekoak.
- b) 3-5 litro artekoak.
- c) Kolore desberdinekoak.
- d) Forma desberdinekoak.

**17. Ordenagailuek hautsa erakartzen dute, arrazoi hauengatik:**

- a) Energia estatikoz kargatu ohi dira.
- b) Hautsa erakartzen duten materialez eginda daude.
- c) Barruan imanak dituzte, eta hauek eduki minerala duen hautsa erakartzen dute.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**18. Zein dira arbelak garbitzeko produkturik egokienak?**

- a) Produktu urratzaileak erabili behar dira garbitzeko.
- b) Uretan bustitako baieta eta detergente neutroa.
- c) Desinfektatzaileak eta detergente alkalinoak.
- d) Baieta lehorra bakarrik.

**19. Zein garbitu behar da lehenik komunean?**

- a) Konketa.
- b) Bideta.
- c) Bainuontzia.
- d) Komun-ontzia.

**20. Zer da zuzena, pixatokiak garbitzeari dagokionez?**

- a) Komun-ontziak garbitzen diren modu berean garbituko dira.
- b) Komeni da soluzioa pixatokiaren barruan uztea minutu batzuez.
- c) Zikinkeria mineralerako detergente azidoa erabiliko da eta, ondoren, kateari tira egingo zaio.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**21. Zein da desinfektatzaile on baten ezaugarria?**

- a) Oso disolbagarria izatea.
- b) Usain desatsegina izatea.
- c) Kolektiboarentzat kaltegarria izatea.
- d) Korrosiboa izatea.

**22. Desinfektatzaile on batek izan behar dituen ezaugarriei dagokienez, adierazi erantzun okerra:**

- a) Ez da sukoia izango.
- b) Egonkorra izango da biltegitratuta.
- c) Eragin azkarra eta eraginkorra izango du giro-tenperaturan.
- d) PH-aren aldakuntzekiko sentikorra izan behar du.

**23. Kristaletako zikinkeria kentzeko kontuan hartu behar da:**

- a) Pintura-orbanak erraz kentzen dira erretzeko-alkohola erabilia.
- b) Behetik gora garbituko ditugu beti.
- c) Intsektu-orbanak kentzeko trementina-esentzia erabiliko dugu.
- d) Ahal dela, ez ditugu garbituko eguzkiak kristaletan distira egiten dutenean.

**24. Zein da garbitzeko hurrenkera zuzena?**

- a) Sabaia, horma, zorua.
- b) Sabaia, zorua, horma.
- c) Horma, sabaia, zorua.
- d) Zorua, horma, sabaia.

**25. Linoliozko zoruak:**

- a) Gogorrak dira.
- b) Produktu alkalinoekiko sentikorrek dira.
- c) Porotsuak dira.
- d) Zuzenak dira b) eta c) erantzunak.

**26. Zerk adierazten du disko urratzaile baten agresibitate-maila?**

- a) Koloreak.
- b) Dentsitateak.
- c) Tamainak.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**27. Zein orban-mota kentzen ditu urez eta detergente azidoz egindako soluzioak (%50ean) edo ur eta 96 graduko alkoholaren arteko soluzioak?**

- a) Tinta-orbanak
- b) Txikle-orbanak.
- c) Oxido-orbanak
- d) Koipe-orbanak.

**28. Hauetatik zein dira zoru gogorrak?**

- a) Zeramikazko zoruak.
- b) Binilozko zoruak.
- c) Kortxozko zoruak.
- d) Gomazko zoruak.

**29. Zein ikastetxek izaten dute L2 langilea?**

- a) Haur eskolek.
- b) Haur Hezkuntzako ikastetxeek.
- c) Lehen Hezkuntzako ikastetxeek.
- d) Denek.

**30. Gainazalak ontzi bakarreko moparekin garbitzen direnean, zer garbitzen da lehenik?**

- a) Gainazala, ezkerretik eskuinera.
- b) Gainazala, bertikalean.
- c) Zokaloak.
- d) Gainazala, eskuinetik ezkerrean.